

Detroit edo krisiarekin hirietan nola bizi dutxa eta iturriko urik gabe



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Komunaren tankea hutsik dago. Hortzak garbitzeko ura botilan. Goizean jaikitakoan ura sukaldean kazola batean berotuta gorputza atalka garbitu. Kontuz zenbat gastatzen duzun otorduetako ontziak garbitzen. Nola egiten da gobada ura moztu dizutenean? Ahaztu balkoiko loreak. Nor akordatzen da soropilaz. Milaka familiak egin dute denboran atzera mundu aberatseko hirietako auzune pobretuetan.



Egunero Catherine Caldwellk botilara-tutako hiru galoi (11,3 litro) ur igotzen ditu bainugelara, bi galoi (7,5 litro) gehiago sukalderaino. 19 litro horiekin moldatu beharko du lauko familiak eskuak garbitu, komunean egindakoak pasarazi, kuzinatu eta platerak garbitzeko, sutan epeldurik noski. Dutzatza ama-ginarrebaren pisura joan behar, bloke batzuk harantzago.

44 urte dauzkan Calwell, bere senarra eta bi biloba txikik lau hilabete daramate iturriko urik gabe Detroiten. Hamabostean behin botilatan ekartzen diete We The People of Detroit (Gu Detroiteko Jendea) elkarteak. Bigarren aldia da horrela daudela azken hiru urteotan. Faktura ordaintzeko iritsi ez zaienez, konpainiak eten egin die.

Zenobia Jeffries kazetariak kontatu du *Yes* aldizkarian horrelakoak gauza korrientea direla Detroiten, zeinaren herritarren artean txirotasun proportzioa %40a iristen baita. Hemen iturriko uraren prezioa bikoiztu egin da azken hamar urteetan. Milaka familiak zor diote faktura udalari eta honek publikoki aitortua duenez 50.000 mozketa egin ditu zordunei hornidura eteteko kanpaina 2014an hasi zuenetik.

Urte hartan kiebra jo zuen Detroiteko udalak eta atzeratutako zorrak kobratu nahi zoroan fakturak xuxen pagatuak zituzten 900 familiari ere itxi zieten iturria hasieran. Gaur egun 10.000 edo 20.000 familia daude oinarritzko zerbitzu hori gabe eta 45.000 gehiagok

oraindik ura badaukate txirotentzako laguntza bereziei esker, edozein unetan lehorrean geratzeko arriskuan.

Iturririk erabili ezina ez da Detroiteko familien lehenbiziko kalamitatea, ez bakarra. 1950ean 1,8 milioi biztanle edukitzera iritsi zen hiri hau krisi gorrian murgildu zen petrolioaren 1973ko *shockaren* ostean, hemen ekoizten ziren auto handi gasolina zurrupatzaileak merkatuan gainbehera joandakoan. Gerotik ez du bururik jaso Detroitetik eta gaur 700.000 biztanle dauzka, txirotasun markak hautsiz.

Antzeko istorioak entzun daitezke AEBetako hainbat hiritan. 2010etik eta 2015era artean %41 igo zituzten tarifak. EPA Ingurumena Zaintzeko Agentzia publikoak kalkulatu du batez beste familia iparramerikar batek 1.500 litro ur kontsumitzen duela egunean, eta ur kontsumoa pagatzen ematen duela diru-sarreraren ia %5.

Elizabeth A. Mack eta Sarah Wrasek aztertu dute arazoa AEBetako geografia osoa hartzen duen ikerlanean: "Ura-
ren tarifak garestitzen jarraitzen badu ondoko bost urteetan, aurreikusi den moduan, gaur AEBetan pagatzera iristen ez diren familien %11,9 hori igo daiteke %35,6raino. Arazo larria da, kaskadan ekarriko dituen eragin ekonomikoengatik; ur zerbitzuen hornitzaileek bezero gutxiago edukitzean are gehiago garestitu beharko dute prezioa, ordaintzen ez dutenek eragindako kosteak berdintzeko".

Arazoa konpontzea erraza ez da izango. Klimaren aldaketak handitzen du ur kontsumoa eta aldi berean murrizten inguruko mendien eta lurpeko geruza freatikoen emaria. Hiriak auzune urrunetara hazi izanak, Iparramerikak mundu osoan modan jarri duen etxe txikien eredu suburbanizatua gero eta gastu handiagoen iturri da. Aldi berean, Detroit bezalako hirietan populazioa eta jarduera ekonomikoa gutxitzeak handitzen du biztanle bakoitzari dagokion faktura puska. Hazkundearen beroan eraikitako azpiegituren matxurak ezin konpondu, beharrezko berriak ezin eraiki...

Amets amerikarretik iratzarri ezinik

We The People of Detroit erakunde presbiterianoak ur-larrialdietarako telefonoa eskaintzen die herritarrei. Beste 50 karitate eta solidaritate elkarterekin batera 2008tik daukate antolatuta People's Water Board Coalition. Boluntarioek laguntzen diete ingurueneko ur banaketa gunea lokalizatzen edo udalarekin atzeratutako zorrak negoziatzen. 120.000 familia inguru (300.000 herritar, gezurra diruen arren) omen daude hirian goizago edo beranduago iturriko urik gabe geratzeko arriskuan.

Herritar behartsuenei laguntzeko aurkitzen duten arazo handietakoa da informazioa eza, txirotasunak eragiten dituen egoerak estatistiketatik urrun geratzen baitira gehienetan. Hasteko, ur mozketen mapa bat osatu dute, kri-



AP agentziak zabaldutako argazkian, karrikako protesta Detroiten 2014an, udala lehenbizikoz hasi zenean familia zordunei ur hornidura eteten. Aulki gurgildunean datzan boluntarioak aldarrikatzen du: "Erasotzaileari, itzuli muturrekoa". Atzean daukaten banderolak salatzen du udalak bankuei 537 milioi dolar ematen dizkiela eta aldi berean herritarrei ura ukatzen. Mundu osoan zabaltzen ari den arazoa are gehiago konplikatzeko da udalek ur hornidura pribatizatuta daukatenean.

siarekin gainbehera etorritako hiri baten erradiografia harrigarria marraztuz: urik gabe bizi diren familiak %5 azpitik badira erdiguneko auzo askotan, periferian urruntzen joan ahala handituz doaz portzentaia... iritsi arte familien erdiak baino gehiago iturriko urik ez duten auzuneetaraino.

Ikasle eta akademikoei enkargaturik emergentziaren tamaina aztertzea, kuantitatiboki hondamendien osteko medikuntza eta osasun zerbitzuen beharra neurtzen duen CASPER metodologia erabili dute, ur mozketek azkenean ospitaleetan ere daukaten ondorioak ezagutzeko. Kualitatiboki, 40 boluntario entrenatu dituzte arazotan dabilzanak metodoz elkarriketatzeko, larrialdiaren ondorio psikologiko eta sozialak neurtzeko.

"Eredu horien bidez ezagutu nahi ditugu hiriak finantz-hondamendi

honen erdian daukaten osasun beharrak eta detroitarrak ahulenei eragin dizkien kalteen argazkia ezagutu. Guztiok merezi dugu komunitate osasuntsu eta kohesionatuetan bizitzea. Tamalez, Detroiteko dozenaka mila pertsonaren eguneroko oigia da borrokatu egin beharra daukatela giza eskubideak eskuratzeko, tartean ur on, garbi eta merkea eskuratzeko eskubidea".

Michiganeko hirian industria eraitsi ondoren indar, diru eta biztanlez hustutako hiri eta auzoen adibide muturrekoa den arren, XXI. mendean gizarte hiritartu gero eta gehiagok nozitzen dituzten arazoak argigarri ere bada. Hazkunde hamarkada beroetan eraikitako auzo, azpiegitura eta zerbitzu asko gaur garestiegi bezain jasan ezin bilakatzen ari dira.

Auto pribatuaren beharra, askotan soropil pribatua zaintzea, gas, argindar eta hur horniduren mantentze zaila... Krisia sakondu ahala garai batean modan egondako periferietako bizimodua konplikatu egin da eta gero eta gehiago dira administrazioak bere kontura bizi-rautera kondenatzen dituen familiak.

Zenobya Jeffriesek dio bere erreportajearen aipatu Caldwell andreak burdindegian erreminta egokia erosirik bere eskuz ireki duela etxera ura ekartzeko giltza, legez udal langileek beste inork ukitu ezin duena. Tranpatan hartzen dio ura herriari, beste askoren gisan. Bost urteko espetxez zigortzen da "felony" (delitu larri) hori AEBetan. "Ez dizut gezurrik esango, neuk ireki dut pasoa. Ondo dakit kartzela arriskatzeko dudala, baina bilobak dauzkate etxean". ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

